

ARARTEKOAREN TXOSTEN BEREZIA

EUSKAL HERRIA ENERGIA-EREDU IRAUNKOR BATERA IGAROTZEA

Arartekoak trantsizio energetikoari buruzko gizarte-hitzarmena sustatzea gomendatzen du. Hitzarmen horrek Euskadiko trantsizio energetikorantz abiarazitako bidean aurrera egiten lagundu beharko du. Halaber, bide emango du adostasunik handiena duten neurriak bizkortzeko (energia-aurrezpena eta -eraginkortasuna, energia berriztagarrien sustapena eta energia fosilen kontsumoaren eta berotegi-efektuko gasen isurien murrizketa, garraioan bereziki).

1. Euskadiko energia-eredua trantsizioan

Mundu osoko gizartea eraldaketa energetiko sakonean murgilduta dago. Trantsizio hori une berezian jarri da mahai gainean; izan ere, nazioarteko konpromisoek eta hitzarmenek —hala nola, Parisko Hitzarmena eta Energiaren Batasuna sortzeko Europar Batasunaren proposamenak— ibilbide-orri bat zehaztu dute, eta haren helburuak dira berotegi-efektuko gasen isuririk murriztea, energia-aurrezpeneko eta -eraginkortasuneko kuotak ezartzea eta iturri berriztagarrietatik datorren energiaren kontsumoa sustatzea.

Euskadik egoerak eskatzen duen bezala jokatu behar du gizartearen deskarbonizazioaren erronkan. Nazioarteko eta nazioz gaindiko konpromisoak aukera bihurtu daitezke Euskadi erreferente izan dadin, gizarte eta ekonomia deskarbonizatuaren eredu gisa, eta energiaren arloko ikerketan eta garapen teknologiko eta industrialean duen eginkizuna finkatuz.

Euskadiko Energia Estrategia 2030 eta 2050erako Klima-Aldaketaren Euskadiko estrategia, horietan dira Euskadik gaur egun dituen funtsezko bi oinarriak. Horiek benetan ezar daitezkeen, funtsezkoa da politika-, enpresa- nahiz gizarte-mailan adostasun handia lortzea, energia-sistema jasangarri bateko funtsezko printzipioen inguruan, eta horiek EAEn aplikatu behar diren moduari dagokionez.

Eredu jasangarriagoranzko trantsizio energetikoa egite aldera, hiru oinarri bete behar ditu energia-ereduak: segurua izan behar du, lehiakorra, eta ingurumen- inpaktu ahalik eta txikiena eragin behar du. Halaber, **ereduak bidezkoa izan behar du, eta gizartearen onarpena izan behar du**. Gizarte honen erronketako bat hau da: planetan bizi diren pertsona guztien eta etortzeko dauden belaunaldien ongizatea bermatzea. Horretarako, biziraungo badugu, **herritarrek beren gain hartu beharko dute** eredu eta ohiturak aldatzeko **erantzukizuna**.

Hausnartu beharra dago energia-ereduaren funtsezko oinarrietan beste bat sartu behar ote den: **gizartearen onargarritasuna**. Eztabaida horretan, giza-faktorea funtsezko elementua da, eta haren inguruan daude energia-estrategia jasangarriaren beste premisa guztiak.

Trantsizio-ereduak aintzat hartu behar du herritarrek eskubidea dutela behar dituzten energia-iturriak eskuratzeko, horiek ingurumen kalitateko baldintza egokietan hornitzen direla bermatuta eta arrazoizko prezioetan.

2. Arartekoaren egitekoetako bat: euskal botere publikoen kontrol instituzionala burutzea

84/2012 Gomendioa aipatu behar dugu txosten berezi honen aurrekaritzat. Horren bitartez, Arartekoak Eusko Jaurlaritzari eskatu zion Euskadiko Energia Estrategia berrikus zezala, Euskadin zeuden gas naturaleko (fracking) meategien esplorazioaren eta ustiapenaren ingurumen-ebaluazio egokia egiteko. 2013ko abenduan, Eusko Jaurlaritzarengana jo zuen erakunde honek, haize-energiaren inguruko adostasuna sustatzeko gizartearengan, erakundeengan eta herritarrengan. 2016an, Euskadiko energia-pobretasunari buruzko gomendio orokor bat egin zen, eta 2017an, Euskadiko energia-pobretasunari aurre egiteko neurriei eta jardunbide egokiei buruz hausnartzeko eta eztabaidatzeko jardunaldi bat antolatu zen.

Txosten hori garrantzitsua dela eta gaur-gaurko gaia dela hauteman daiteke azken asteetan plazaratutako informazio esanguratsuei erreparatuta. Orain dela gutxi Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldeak (IPCC) Hego Korean aurkeztutako txostenaren arabera, berotze globala 1,5 °C-ra murrizteko, inoiz ez bezalako helmen handiko aldaketak egin beharko lirateke gizartearen alor guztietan.

Urrian, 15/2018 Errege Lege-Dekretua, trantsizio energetikoa burutzeko eta kontsumitzaileak babesteko premiazko neurriei buruzkoa, eman zuen Ministroen Kontseiluak. Nork bere etxean energia produzitzeko, kontsumitzeko eta gordetzeko esparru juridiko berri baterako oinarriak jarriko ditu lege horrek. Hortaz, aldatu egingo da kontsumitzaileen egitekoa, eta *prosumitzaile* bilakatuko dira.

Gaur egun, bi lege-proiektu garrantzitsu izapidetzen ari dira: Jasangarritasun Energetikoari buruzko Lege Proiektua eta Ingurumenaren eta Klima aldaketaren Lege Proiektu orokorra.

3. Txostenaren helburua

Txosten honen xedea aldaketa horiek guztiak testuinguruan jartzea da, herritarrek EAEko energia-sistemaren etorkizunari buruzko hausnarketarako abiapuntutzat har ditzaten. Hona hemen txostenaren helburuak: administrazioaren maila desberdinetan garatzen ari diren politikak ezagutaraztea; gaur egungo egoeraren diagnostikoa egitea; eta energiaren etorkizunari buruz hausnartzeko funtsezkoak diren elementuak planteatzea.

Txostena idazteko, Arartekoak Basque Centre for Climate Change-BC3/Klima Aldaketa Ikergai (BC3) ikerketa-zentroa izan du lagun.

Diagnostikoa:

- Nabarmendu beharra dago planetak **gizartearen deskarbonizazioaren erronkari** egin behar diola aurre, eta, horretarako, **adostasun handia behar dela**.

Nazioarteko hitzarmenek eta Europar Batasuneko zuzenbideak tokiko akordioak behar dituzte energia-eraginkortasuna lehenetsi, energia berriztagarriak bultzatu eta kontsumitzaileei tratu zuzena eskaintzeko esfortzuak eta laguntzeko neurriak areagotzeko.

- **Euskadiko energia-sistemak**, energia-baliabideen erabileraren aldetik efizientea bada ere, gaur egun **energia fosilak erabiltzen ditu** nagusiki (% 80-90, 2000-2014 urteen bitartean).

Sektoreka, aintzat hartu behar da, Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) emandako datuei erreparatuta, 2016. urtean, hauexek zirela energiaren azken kontsumitzaile nagusiak: garraio-sektorea (% 40,2) eta industria (% 39,1), eta, horien ondoren —aurrekoekiko alde nabarmena zegoela—, etxebizitza-sektorea (% 10,7) eta zerbitzuak (% 8,6).

Euskadik, oraindik ere, kanpotik datorren **energiarekiko mendekotasun handia** du. Energiaren prezioek gora egin dute azken hamarkadan, batez ere, enpresetarako eta etxebizitzetarako elektrizitatearen prezioa igo da, 2005etik 2015era bitartean.

Eurostaten datuen arabera, 2005etik 2015era, Espainian, elektrizitatea% 63 garestitu zen industriako kontsumitzaile ertainen kasuan, eta % 10 etxeko elektrizitatearen kasuan.

EEEko datu zehatzago batzuek adierazten dute, 2005etik 2015era bitartean, EAEko etxebizitza-sektorean % 45 egin zuela gora energiaren fakturak (715 eurotik 1.037 eurora).

- **Euskadin txertatutako politika energetikoak eta klimatikoak hasiak dira emaitzak ematen**: hobetu egin da intentsitate energetikoa, murriztu egin dira berotegi-efektuko gasak eta energia-kontsumoa eta isuriak banandu egin dira hazkunde ekonomikotik.

Horren adierazle da Euskadiko energiaren azken intentsitatea, BPGd-ren unitate bakoitzeko kontsumitutako energia, alegia. 2016an 13 puntu igo zen, 2008. urtearekin alderatuta.

Berotegi-efektuko gasen isuriek beherako joerari eutsi diote, eta 1990. urteko isuriak baino %12 gutxiago izan ziren 2016. urtean.

- Aitzitik, energia-kontsumoak eta garraio-sektorearen isuriek, ordea, gora egiten jarraitzen dute. Energia berriztagarrien kontsumoak, berriz, ez aurrera ez atzera gelditu da Euskadin, dagoen ahalmena gorabehera.

Garraio-sektorean, energia berriztaezinaren kontsumoak gorako joerari eusten dio tinko; intentsitate energetikoa 6,8 puntu igo da 2008. urtearekin

alderatuta. **Garraioan kontsumitutako energiak energia osoaren % 40,2 hartzen du dagoeneko**, eta % 95,7 petroliotik eratorritako energiatik dator.

Isuriek areagotzen jarraitzen duten sektoreetan garraioa da nagusi; izan ere, 1990etik ia bikoiztu egin dira isuriak, batez ere ibilgailuen erabilerak eragindakoak. Sektore horrek isurien (elektrizitateari lotutakoak barne) % 31 hartu zuen 2016an.

Euskadin iturri berriztagarrietatik datorren energiaren azken kontsumoa urria da oraindik, Estatuko eta Europar Batasuneko batezbestekoaren aldean.

Euskadin, energiaren azken kontsumo osoaren % 7,6an mantendu da **berriztagarriek 2016an izandako kuota**. Kuota hori % 14,3ra igotzen da beste lurralde mugakide batzuetatik inportatutako jatorri berriztagarriko energia elektrikoaren ehunekoa kalkulu horretan jasoz gero.

4. Euskadiko gobernantza energetikoa eta klimatikoa hobetzeko gomendioak

- Trantsizio energetikoari buruzko **gizarte-hitzarmena** sustatzea.
- Erabaki energetikoei eta klimatikoei buruzko **eztabaida-foroa** sortzea.
- Gai hauen inguruko **gizarte-etzabaidarako oinarri** batzuk ezartzea: euskal erakunde publikoen trantsizio energetikoa eta finantzaketa, aztertzea zer baliabide ekonomiko eta antolakuntzako dituzten horiek eta lotuta ote dauden helburu energetiko eta klimatikoekin, eta saiatzea gizarte-adostasuna lortzen energia berriztagarrien erabilera bultzatzeari dagokionez.
- EAEn, **energiaren eta klimaren inguruko plan integratuak** egitea eta haien estrategiaren printzipioekin zein nazioarteko, Europako eta Espainiako plangintzarekin koordinatzea.
- **Energia-eskubideen katalogoa** eta euskal energia-*prosumitzailearen* estatutua egitea, eta kolektibo zaurgarrientzako neurriak hartzea.
- Euskadin **aurrezpena eta eraginkortasuna** sustatzeko ekintza-plana.
- Euskadin **energia berriztagarria** sustatzeko ekintza-plana.
- **Mugikortasun jasangarriko planak** bultzatzea. Ibilgailu elektrikoa sustatzea, kutsadura gutxiago sortzen duen garraiobide pribatua baita.
- **Etxebizitza-sektorea**: gomendatzen da etxebizitzetako kontsumoaren monitorizazioa bermatzea, energia-auditoretzak sustatzea eta autoekoizpena nahiz eraikinetan sortutako energia elektrikoaren kontsumoa babestea.

- **Ingurumen-fiskalitatea:** Arartekoak gomendatzen du erreforma fiskal bat egitea, Euskadin karbono gutxiagoko eredu jasangarriago bateranzko trantsizio energetikoa burutzeari lotutako helburuak betetze aldera.

Finean, **txosten honen helburua da azpimarratzea gizarte-hitzarmen bat egin behar dela**, aurrera egiteko Euskadiko trantsizio energetikorantz abiarazitako bidean, eta laguntzeko adostasunik handiena duten neurriak bizkortzen (energia-aurrezpena eta -eraginkortasuna ahalik eta gehien handitzea, Euskadin energia berriztagarriak sustatzea eta energia fosilen kontsumoaren eta berotegi-efektuko gasen isuriak murriztea, garraioan bereziki).

Horrez gain, **Arartekoak** Euskadin karbono gutxiagoko **eredu jasangarriago bateranzko trantsizio energetikoa burutzeko konpromisoa** hartzen du, herritarren eta etortzeko dauden belaunaldien ongizatea bermatze aldera.

Horretarako, Arartekoak hitzematzen du **energia arloko gobernantza ona sustatuko** duela; haren helburua, alde batetik, adostasunak eta bermeak bilatzea da, konpromiso energetikoak eta klimatikoak behar bezala bete daitezen; bestetik, agintzen du Euskadiko kolektibo zaurgarrienen gizarte-eskarien hartzaille gisa duen lana sustatuko duela eta nazioarteko zein Europar Batasuneko konpromisoak bete daitezen sustatuko duela.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urriaren 29a